

Baliabide fisikoa: Gure enpresan beharrezkoak diren baliabideetako batzu honako hauek lirateke: Lokala, lokalean produktua erakusteko zenbait altzari, ordenagailua, telefonoa, produktua diseinatu eta sortzeko materiala, langileak...

Baliabide intelektuala eta giza baliabideak: Bost profesional desberdinez osatutako talde bat izango gara non bertan bakoitzak bere baliabideak aplikatuko lituzkeen:

- Juleni oso ongi ematen zaio besteekiko harremana beraz, dendan erosleari atenditzeaz arduratuko litzateke.
- Enekok duen esperientzia elektronikan kontuan izanik, salmenta digitala eramateaz arduratuko litzateke (webgunea sortu...).
- Aimar langile fina eta arduratsua denez, produktuak sortzeaz arduratuko litzateke, bakarrik lan gehiegi izango dela pentsatu dugu eta sinergia sortzeko horretan ohituta dagoen langile bat kontratatuko genuke.
- Patxik marrazketan eta diseinuan duen abilezia eta ideia zaparrada kontuan izanik, produktuaren diseinuaz arduratuko litzateke.
- Xabiri garraiatzea ongi ematen zaionez, garraioaz arduratuko da. Horretarako bere kotxea erabiliko luke hasiera batean behintzat, gerora salmentak ongi badoaz kamioneta bat alkitatuko genuke.

Finantza-baliabidea: Gure aurrezkien bidez eta dirurik falta bazaigu maileguren bat eskatuko genuke denen izenean, ondoren enpresaren salmentak ondo joango balirateke bertatik itzuliko genieke diru kopuru hori.